

ANDOAIN LABURREAN

film laburren lehiaketa

OINARRIAK 2016

PARTE HARTZAILEAK

1.- 16 urte baino gehiago duen (2016eko abenduaren 31rako 16 urte betetzen dituztenak), profesionala EZ den eta Andoaingen bizi, ikasi edo lan egiten duen edozeinek parte har dezake lehiaketan.

LANEN EZAUGARRIAK

2.- Filmak hizkuntz edukiren bat izatekotan (ahotsa, musika, elementu grafikoak...), honek EUSKARAZKOA behar du izan.

3. - OBJEKTUA: gaia librea den arren, film laburrean Xabier Lasa Bergarak idatzitako eta Andoaingo Udalak argitaratutako "Aita Manuel Larramendi" izeneko liburua azaldu behar da (zeharka zein istorioaren elementu garrantzitsu gisa). Interesa duen orok eskura dezake liburuaren alerik Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan, edo eska dezake 943 300 831 telefonoan eta bidaliko zaio.

5.- Ikus-entzunezko lanek gutxienez 5 minutu eta gehienez 15 minutu iraungo dute (kredituak barne).

10.- Lanek argitaratu gabeak izan behar dute, beste inon (jaialdi, lehiaketa, zinema, telebista edo interneten) ikusi gabeak.

11.- Edozein generotakoa izan daiteke lana. Andoaingo herriari aipamena egitea hobesten da (Andoaingen grabatu, Andoaing herria aipatu, ...)

NOLA AURKEZTU LANAK?

1. Bi modutan aurkeztu ahal izango dira:

- *My Air Bridge* (www.myairbridge.com) bidez bidali daitezke bideoak euskarazerbitzua@andoain.eus postara.
- Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan aurkez daitezke, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:00etara.

Bideoaz gain, azaldu beharko dira honako datuak: taldekideen edo egilearen izena eta abizenak, jaiotze data, Andoaingekin duten harremana (bizi, ikasi edota lan egin), kontaktua eta film laburraren izenburua.

8.- Lanak bakarkakoak edo taldekakoak izango dira. Partaide bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake, bakarka zein taldeka bada ere.

9.- Lanak aurkezteko artxibo motak honakoak izan daitezke: mov, mpeg, flv eta wmv. Nahi den bereizmena izan dezakete lanek. Aukeran, 1280 x 720 p (HD Ready) edo 1920 x 1080p (Full HD) bada hobe.

12.- Antolatzaileek ez dituzte bere egiten aurkeztu diren lanetan egiten diren adierazpenak, erabilitako irudiak edota isuritako iritziak. Beraz, ez dute horien gaineko inolako erantzukizunik. Era berean, antolatzaileek lehiaketatik at utziko dituzte hirugarren pertsonen irudiari, ohoreari eta osotasunari kalteak sor diezazkieketen lanak .

Informazio gehiago: www.andoainarraeuskaraz.eus webgunean, Andoaingo udaletxeko Euskara Zerbitzuan, edo Andoaingo Bideo eta Zine Eskolan.

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua: 943 300 831

euskarazerbitzua@andoain.eus

LANAK AURKEZTEKO EPEA

2016ko **azaroaren 23a** (asteazkena) izango da lanak aurkezteko azken eguna.

SARIAK

1. Saria: 300 euro.
2. Saria: 200 euro.
3. Saria: 100 euro.
4. Saria: 75 euro.

Sari horietaz gain, saridun guztiek ELKAR argitaletxeak eskainitako materiala ere jasoko dute.

Epaimahaiak sariren bat eman gabe uzteko ahalmena izango du.

EPAIMAHAI A

Hiru adituk osatutako epaimahaiak lanak ikusi eta baloratuko ditu kalitate teknikoa, originaltasuna eta sormena kontuan hartuta.

SARI BANAKETA

Sari Banaketa abenduaren 1ean, Bastero Kulturguneko ekitaldi aretoan izango da, arratsaldeko 18:00ean. Bertan jakingo da epaimahaiaren erabakia eta bertan lan onenak proiektatuko dira, KIMUAK proiektuko lan batekin batera.

BALDINTZETAN ALDAKETAK

Baldintza hauek aldatzeko aukera antolatzaileen esku gelditzen da, hau da, Andoaingo Udaleko Euskara Batzordearen esku, arrazoiak direla tarteko.

ANTOLATZAI LEAK

Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzua eta ESCIVI (Andoaingo Bideo eta Zine Eskola)

BABESLEA

ELKAR